

SARRERAKO OHARRA

“Jesusen aurkezpena Tenpluan”, horixe da gaur ospatzen duguna. Juduek, lehen semea jaio eta berrogei egunera Tenplura eraman behar izaten zuten, Jainkoari eskaintzeko. Maria eta Josek legeak agindutakoa bete zuten Jesusekin.

Gaur, ospakizun honetan, azken urte honetan bataiatutako haurren familiak daude. Jainkoari eskerrak eman eta beren seme-alabentzat bedeinkapena eskatzera etorri dira.

Poz-pozik ospatuko dugu jai hau eta, gainera, geure bataioa ere gogoratuko dugu.

Hasteko, otoitz eginez kandelak bedeinkatuko ditugu eta, ondoren, azken urtean bataiatutako haurren familiak eta elkarte osoa.

Kandelak piztu.

Azken urtean bataiatutako haurren familiak aurrean ipiniko dira.

Eta apaizak bedeinkapen-otoitza egingo du.

KANDELEN BEDEINKAPENA [apaiza]

Egin dezagun otoitz.

*Ene Jainkoa, Kristo herrien argia agertzen diguzuna,
santu egin zure bedeinkapenaz (+) kandela hauek;
onartu zu goresteko bildu den herriaren nahiak,
eta eraman gaitzazu onbidetik,
betiereko argira irits gaitezen.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.*

FAMILIAK BEDEINKATZEKO OTOITZA ETA IHINZTADURA [apaiza]

*Zatoz, Jauna, gure parroketan bataiatutako
haur hauei laguntzera.
Hauxe da beren etxea, eta gu beren familia.
Ezagut dezatela Jesus,
Bera maitatuz, fedez zure atzetik joan daitezen.
Bedeinka itzazu, Jauna, eta bedeinkatu beren guraso,
anai-arreba eta familia osoa.
Familia hauei, eman iraunkortasuna fedea zabaltzeko egitekoan.
Maiz egin dezatela bat elkartearekin
itxaropenari eutsi ahal izateko.
Distirarazi beraiengan eredu onak
eta jarri beren ezpainetan hitz egokia
zure maitasunaren lekuko izan daitezen.
Atera itzazu gaitzetik
eta lagun iezaiezu bataio egunean
agindutakoa betetzen.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

Ihinzadura egin abesten den bitartean.

ABESTIA: *Jesus munduko argia*

OTOITZA

*Jainko ahalguztidun eta ona,
zure Seme Jesus tenpluan aurkeztu duten bezala,
aurkez gaitzatela geu ere
zure aurrean arima garbiz.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez,
zurekin eta Espiritu Santuarekin batera errege bizi da-eta
gizaldi eta gizaldietan. Amen.*

OHARRA 1. irakurgaiari (Isaias 58, 7-10)

Jesus jaio baino askoz aurretik bizi izan zen Isaias profetak idatzi zituen entzungo ditugun hitz hauek. Gaizki pasatzen ari direnez arduratzen garenean, gure bizitza argiz betetzen dela eta Jainkoaren presentzia sentitzen dugula diosku.

1. IRAKURGAIA: Isaias 58, 7-10

ABESTIA

OHARRA EBANJELIOARI: Lukas 2, 22-40

Jesus, Salbatzailea dela esaten digu San Lukasek eta Hark argi egingo duela herrietan. Bedeinka dezagun Jainkoa, 'aleluia' abestuz.

ALELUYA (*Taize*): *Aleluia, Alelu, Aleluia*

EBANJELIOA: Lk 2, 22-40

HOMILIA (laburra)

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Apaiza: Egin diezaioGUN otoitz Jainko gure Aitari, Mariak tenpluan aurkeztu zuen bere Semearen bitartez. *Ireki gure begiak, Jauna, ikus zaitzagula* esanez erantzungo dugu.

1.- Simeon agureak esaten zuen: "Nire begiek Salbatzailea ikusi dute". Guk ere argi egiten digun argia Jesusengan ikus dezagun. EGIN DEZAGUN OTOITZ.

2.- Legeak agindutako epea bete zenean, Jesusen gurasoek tenplura eraman zuten Jaunari aurkezteko. Gurasoek bataioan aurkezten dituzten gure elkarteko haurren alde eska dezagun. Jesus maisu eta adiskide aitor dezaten eta haren atzetik joan daitezen, Berak bezala on eginez. EGIN DEZAGUN OTOITZ.

3.- Ana, tenpluan zen emakume edadetuak Jesusi buruz hitz egiten zien handik igarotzen ziren guztiei. Egin dezagun otoitz gure aitona-amonen eta elkarteko pertsona nagusien alde, Jainkoaz dakitena konta diezaguten eta Jainkoa beti ondoan dutela senti dezaten. EGIN DEZAGUN OTOITZ.

4.- Jesus ezagutzen ez duten, ia ezer ez duten haurren alde, lagun diezaiegun eta Jainkoa beren Aita dela eta zaindu egiten dituela senti dezaten. EGIN DEZAGUN OTOITZ.

Apaiza: Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA ESKAINTZARI

Gure paga elkartearekin erdibanatu aurretik, ogia eta ardoarekin batera, gure bataioa gogoratzen digun hainbat gauza aurkeztu nahi dugu:

- ❖ *Pitxerra uraz.* Bataio-egunean gure buruen gainera isuri zuten ura aurkezten dugu. Landu eta sakondu nahi dugun fede-bizitzara jaiotzea adierazten du.
- ❖ *Olio.* Kristau izateak eskatzen digun indar eta bizitasunaren zeinu den Bataioko olio aurkezten dugu.
- ❖ *Argia.* Pazko-zuziak salbatzen eta argitzen gaituen Kristo berpiztua irudikatzen du. Gogoan izango dugu kandela hau piztean.
- ❖ *Ogia eta ardoa.* Eta hona hemen ogia eta ardoa ere, Jesusen eskaintzaren sinbolo, bere bideetatik ibiltzeko janari.

ESKAITZA: *Por los niños que empiezan la vida*

EUKARISTIA-OTOITZA

A. *Jauna zuekin.*

R/. Eta zure Espirituarekin.

A. *Gora bihotzak.*

R/. Jaunarengan dauzkagu.

A. *Eskerrak Jainko gure Jaunari.*

R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita gutik santu,
Jainko ahalguztidun betiko Horri.

Zure betiko Semea
gaurko egunez eskainia izan zen jauretxean,
eta Espiritu Santuak adierazi zuen
Berau zela Israelen edergarria eta atzerrien argia.

Horregatik, pozez beterik
Zuk bidalitako Salbatzailearen bidera goazela,
aingeru eta santu guztiakin goersten zaitugu,
beti eta beti (esaten) abesten dizugula:

SANTUA: *Alabaré, alabaré, alabaré*

OPARIEN GAINEN OTOITZA

*Atsegingarri izan daitezela zuretzat, Jauna,
zure Elizak ospakizun honetan pozez aurkezten dituen
opari hauek;
zure Semeak eskainitako ematea, indarra eta bizia
gogoratzen eta gaurkotzen dute.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan. Amen.*

GURE AITA

BAKEA: *Pon la mano*

JAUNARTZEKO ABESTIA: *Gure ondoan Jauna*

*Jaunartzearen ostean, ondorengo otoitza egin.
Seme-alaba iaz bateatu duen guraso batek irakur dezala.*

GURASOEN OTOITZA [aita-ama batek irakurrita]

Jainko gure Jauna; Maria eta Josek bezala,
gure eta zure maitasunaren fruitu,
Zeuk eman dizkiguzun seme-alabok aurkezten dizkizugu.

Pozez bete gintuzun zetoze jakitean
eta ezagutu baino lehen maitatu izan ditugu.
Beraiengan aitortzen dugu
zure maitasunaren samurtasuna eta kreaioaren handitasuna.

Emaiezu bizia oparo, osasuntsu eta zoriontsu haz daitezen.
Nagusitzean, Aita bezala aitor zaitzatela
eta zure Seme Jesus salbatzaile eta adiskidearen atzetik
joan daitezela.

Zutaz hitz egingo diegu gure seme-alabei
esker onez bizi daitezen;
konfiantzaz otoitz egin dezaten,
eta apaltasunez entzun zaitzaten,
bataiotik beraiena ere baden etxe honetan.

Eskerrik asko, Aita Jainkoa!

AZKEN OTOITZA

*Elkarte ospakizun honetan parte harturik,
zure graziaz bete gaitzazu, Jauna.
eta Jesusen bila atera gaitzela beti
bere argiaz bete eta betiko bizia jadets dezagun.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

BEDEINKAPENA

AZKEN ABESTIA: *Eskerrik asko, Jauna!*